

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BALIABIDE NATURALEN USTIAPENEN KONTROLA ETA ZAINZA	Iraupena	80
Kodea	MF0084_3		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Naturaguneetako eta landa-eremuetako erabilera publikoaren kontrola	Iraupena	60
	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko kudeaketa-prozedurak.		70
	Hondakinen eta/edo isuriaren kontrola eta zaintza		50
	Ehiza- eta arrain-baliabideen ustiapenaren kontrola eta zaintza		70
	Basoberritzea eta leheneratze hidrologikoa		50
	Basogintza eta baso-izurriteen kontrola		40
	Baso-suteak itzaltzea		50
	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0084_3 BASO-BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MINERALEN USTIAPENAK KONTROLATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Baso-ustiapenak eta/edo basokoak ez diren ustiapenak planifikatzeko ezaugarri nagusiak aztertzea, antolamendu-plan teknikoaren arabera.

E1.1 Baso-baliabideen ustiapen-proiektu bat osatzen duten zatiak aztertzea, haietako bakoitzaren esanahia eta edukiak azalduz.

E1.2 Planoetako informazioa interpretatzea.

E1.3 Baldintza-agiria osatzen duten atalak interpretatzea, eta ingurunean duten eragina ebaluatzea.

E1.4 Baso-ustiapeneko proiektuen eta basokoak ez diren ustiapeneko proiektuen ingurumen-inpaktuen azterketen atalak deskribatzea, haien esanahia eta ingurunean dituzten ondorioak azalduz.

E1.5 Baso-ustiapeneko kasu praktiko batean:

- Ustiapen-proposamen baten zati bakoitza identifikatzea.
- Garatu beharreko sistemak, teknikak eta prozedurak identifikatzea.
- Ustiapenaren entrega-akta bat egitea.
- Baso-ustiapenaren kubikazio partzial bat egitea. Kubikatutako zur horren entrega-akta egitea.
- Behar diren garraio-dokumentuak idaztea.
- Ustiapenaren azken ikuskapen-akta betetzea.
- Lanak egiteko norbera babesteko ekipo egokiak identifikatzea.
- Ustiapenean diharduten langileek beren segurtasunerako neurririk egokienak hartzen dituztela gainbegiratzea.
- Egiten diren lanek zer inpaktu eta kalte eragin ditzaketan jakitea.
- Indarrean dagoen baso- eta ingurumen-araudiaren betetze-maila baloratzea.

A2: Baso-produktuen ustiapena egiaztatzea, jarritako plangintzaren arabera.

E12.1 Baso-ustiapen mota nagusiak identifikatzea, eta natura-ingurunea orekatzeko dituzten abantailak azaltzea.

E12.2 Zuren, egurren eta bestelako baso-produktuen ustiapenaren sistemen, tekniken eta lan-prozeduren ezaugarriak zerrendatzea.

E12.3 Baso-ustiapeneko lanen faseak deskribatzea, eta haiek helburuak azaltzea.

E12.4 Baso-ustiapen bat egiteko beharra sortzen duten baldintzatzaileak aipatzea.

E12.5 Baso-ustiapen bateko izakinak eta produktuak baloratzeko, neurtzeko eta seinalatzeko zer sistema dauden azaltzea.

E12.6 Egindako lanak gainbegiratzea, eta behar denean konponbideak proposatzea.

E12.7 Baso-ustiapen baten ingurumen-inpaktuaren azterketa batek ezarritako baldintzatzaileak gainbegiratzeko kasu praktiko batean:

- Baldintzatzaileak identifikatzea.
- Baldintzatzaile guztiak betetzen direla baloratzea lekuan bertan.
- Ustiapenari buruzko ingurumen-segimendurako fitxa bat betetzea.

- Baldintzatzaile horiek ez betetzeagatik egin behar diren ikuskapen-txostenak edo -aktak egitea.

A3: Baso-ustiapenekoak ez diren produktuen ustiapena egiaztatzea, jarritako plangintzaren arabera.

EI3.1 Basokoak ez diren ustiapen-mota nagusiak identifikatzea, eta natura-ingurunea orekatzeko zer abantaila dituzten azaltzea.

EI3.2 Mineralen eta baso-ustiapenekoak ez diren beste produktu batzuen ustiapenetako sistemen, tekniken eta lan-prozeduren ezaugarriak zerrendatzea.

EI3.3 Basokoak ez diren ustiapen-lanen faseak deskribatzea, eta haiek helburuak azaltzea.

EI3.4 Ustiapen mineral bat edo baso-ustiapenekoak ez den beste mota bateko ustiapen bat egiteko beharra zer baldintzatzailek sortzen duten azaltzea.

EI3.5 Basokoa ez den ustiapen bateko izakinak eta produktuak baloratzeko, neurtzeko eta seinaltzeko zer sistema dauden azaltzea.

EI3.6 Egindako lanak gainbegiratzea, eta behar denean konponbideak proposatzea.

A4: Baso- eta ingurumen-legedia egiaztatzea, baso-produktuen eta basokoak ez diren produktuen ustiapen-lanetarako.

EI4.1 Baso-produktuen eta basokoak ez diren produktuen ustiapen-lanei buruzko legedia eta araudiak aplikatzea.

EI4.2 Ingurumen-inpaktuaren azterketan ezarritako baldintzatzaileak betetzen direla gainbegiratzea.

EI4.3 Baso-produktuen eta basokoak ez diren produktuen ustiapen baten ondorengo faseetan lortutako produktuak maneiatzeko baldintzak aipatzea.

EI4.4 Indarrean dagoen legedia eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak betetzen direla egiaztatzea.

EI4.5 Natura-ingurune hirigintzako arau-hauste posible bati buruzko kasu praktiko batean:

- Arau-hauste posiblea lekuan bertan identifikatzea.
- Dagokion ikuskapen-akta prestatzea.
- Aktarekin batera joango den txosten deskribatzailea idaztea.
- Aktarekin batera joango diren ikusizko materialak eta material grafikoak prestatzea.

Edukiak

1. Baso-ustiapenen interpretazioa.

- Baso-tratamenduak.
 - Ustiapenen definizioa, funtzioa eta helburuak.
 - Gehien erabiltzen diren baso-espezieak.
 - Produktu nagusiak eta bigarren mailakoak.
- Lan-sistemak: sasi-garbiketa, ipurditik moztea, adarrak moztea, trontzatzeta, basotik ateratzea, pilatzea, kargatzea eta garraiatzea.
- Giza baliabideak.
 - Egiten diren lan-motak.
 - Eskuzko erremintak eta erreminta mekanikoak.
 - Basoko makinak.
 - Lanak segidan antolatzea
 - Mozteko txandak.
- Plan teknikoak eta baso-ustiapeneko proiektuak.
 - Helburuak.
 - Proiektuen oinarritzko zatiak: memoria, planoak eta baldintza-orriak.
 - Araudia.
 - Baso-ustiapeneko kontratazioak eta enkanteak.

2. Baso-ustiapenen segimendua.

- Baso-ustiapenen kubikazioa.
- Zura ateratzeko bideak eta pistak kontrolatzea.
- Zuretakoak ez diren baso-produktuen ustiapena.
 - Zuretakoak ez diren ustiapen-motak eta haien ezaugarriak.
- Baso-ustiapenei buruzko araudia.
- Segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak aplikatzea natura-baliabideen ustiapenean.

3. Baso-ustiapenekoak ez diren natura-baliabideen kudeaketa, zaintza eta ustiapena.

- Baso-ustiapenekoak ez diren natura-baliabideak.
 - Deskribapena.
 - Zaintza eta babestea.
- Elementu biotikoak eta abiotikoak.
 - Baloratzeta eta kontrolatzea.
 - Babes-proiektuen eta -planen segimendua.
- Landa-inguruneak. Zaintza eta segimendua.
- Natura-baliabideei eragin diezazkieten kalteak.
- Natura- eta landa-inguruneen erabilerak, eta garapen jasagarri.

- Segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak aplikatzea baso-ustiapenekoak ez diren natura-baliabideen ustiapenean.

4. Landa- eta natura-inguruneko hirigintza-zaintza eta ikuskapena.

- Landa- eta natura-inguruneko hirigintza-diziplina.
- Hirigintzako arau-haustea deskribatzea.
- Hirigintzako arau-hauste motak:
 - Legez kontrako eraikuntzak.
 - Legez kontrako urbanizazioak.
 - Eraikuntzen erabilera ez-baimenduak.
 - Luberritzeak.
- Natura- eta landa-inguruneko legez kontrako jarduera posibleak zaintzea eta ikuskatzea.
- Zehapen-prozedura.
- Hirigintza-diziplina arautzeko araudia: legez kontrako jarduerak, egile materialak edo egile intelektualak, administrazio eskudunak eta prozedura administratiboa, besteak beste.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.